

2004KO URTARRILAREN 29KO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta lauko urtarrilaren hogeita bederatzian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Xanet Barreras Jauregi, Arantxa Zumelaga Agirre, Inazio Barandiaran Aldasoro, Amagoia Naldaiz Mingo, Kepa Goenaga Alikostes, Xabier Arrasate Aierbe, Gorka Lamy Insausti eta Juan Manuel Serna Portugal.

Alejandro Crespo Blanco zinegotzia ez da bertaratu.

Aktan adieraziko da Angel Olaso Villalba eta Inazio Estensoro Eskisabel zinegotziak bertaratzen direneko uneak.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- ALEJANDRO CRESPO BLANCO ZINEGOTZIAREN KARGU UZTEA.-

Alkateak, bilkurari hasiera eman ondoren, Alejandro Crespo Blanco zinegotziak aurkeztutako idatziaren berri ematen du. Idatzi horretan, Alejandro Crespo Blancok, bere zinegotzi kargua utzi egiten duela adierazten du.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

II.- AURREKO AKTA.-

Jarraian, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2003ko abenduaren 18an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

III.- ALKATETZAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

Une honetan Angel Olaso zinegotzia bertaratzen da.

IV.- BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN ZUZENKETA 2004-01-01EAN.-

Udaleko Zerbitzu Teknikoek 2004ko urtarrilaren 1 datara Biztanleen Udal Erroldaren zuzenketa prestatu dutelarik, Osoko Bilkurara aurkezten dira zuzenketa honen zenbakizko emaitzak, bere onarpenerako.

Zuzenketa honen arabera, Lazkaok bost mila eta laurogeita bat (5.081) biztanle zituen 2004ko urtarrilaren 1ean. Zenbaki hau ondorengo eragiketen emaitza dugu:

KONTZEPTUAK	GUZTIRA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK
Biztanlegoa 2003-01-01 datara	5.076	2.616	2.460
Altak 03-01-01etik 2004-01-01era	221	110	111
Bajak 03-01-01etik 2004-01-01era	216	113	103
Biztanlegoa 2004-01-01era	5.081	2.613	2.468

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuz, 2004ko urtarrilaren 1 datara egindako Biztanleen Udal Erroldaren zuzenketa hau onartu egiten du.

V.- 2003KO AURREKONTUKO KREDITU TRANSFERENTZI BIDEZKO 2 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETARI DAGOKION ALKATETZAREN EBAZPENA BERRESTEA.-

Alkateak, 2003ko abenduaren 29ko Alkatetetzaren Ebazpen bidez, Kreditu Transferentzi bidezko 2 zbk.dun Kreditu Aldaketa onartu zuen. Kreditu Aldaketa honen kapitulu-kako laburpena honako hau da:

KREDITU-GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izendapena	IGOERAK
I	Pertsonal gastuak	15.000,00 €
II	Ondasun arrunt eta zerbitzuetan gastuak	36.100,00 €
IGOERAK GUZTIRA		51.100,00 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izendapena	Zenbatekoa
I	Pertsonal gastuak	11.000,00 €
II	Ondasun arrunt eta zerbitzuetan gastuak	35.300,00 €
IV	Transferentzia arruntak	4.800,00 €
GUZTIRA		51.100,00 €

Emandako transferentzien ezaugarriak direla medio, onarpen hau Osoko Bilkuraren ahalmenekoa izango litzatekelako, Alkatetzaren ebazpen honi berrespena eman dezaion Osoko Bilkurara aurkezten da.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du aurrekontua ez zutela onartu eta aurreko kreditu aldaketa ere ez, eta beraz aurka bozkatuko dutela.

Gaia botutara jarri eta, aldeko 10 botu (EAJ, EA, PP) eta aurkako botu 1ez (PSE-EE), honako hau

ERABAKI DA

Lehenik.- Udal honetako 2003 ekitaldiko Aurrekontua afektatzen duen Kreditu Transferentzi bidez egin beharreko 2 zbk.dun Kreditu-Aldaketarako espediente onestea, formulatutako proposamenaren eta aurrekinetan azaltzen den Kapitulukako laburpenaren arabera:

Bigarren.- Jendaurreko informaziorako tramitean jar bedi, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkeztzen ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

VI.- UHAITZ 2 ONDOAN KOKATUTAKO LURSAILAREN OKUPAZIO ESPEDIENTEA.-

Igor Sarriegi Zumarraga zinegotziak, Uhaitz 2 etxean bere gurasoak bizi direla eta gai honetan ez duela parte hartu nahi esaten du eta aretotik irten egiten da.

2003ko azaroaren 6ko Ebazpen bidez, Alkatetzak Uhaitz kaleko 2 zbk.dun eraikina-ren inguruan kokatutako, eta bide eta urbanizaziora zuzendutako 1.124m²-ko azaleraren egoera erregularizatzeko espedienteari hasera ematea ebatzi zuen, bere egunean Lazkao-ko Udalarari zesioan eman behar zitzaiona, Udal Ondareen Inbentarioan sartzeko, baina egin ez zena, horrela erabiltzen den arren.

Era berean aipatu azaleraren jabeen banakako jakinarazpenak egin zaizkie. Jendaurreko erakustaldiak iraun duen 30 lanegunetako epean, Maria Ignacia Arregui Insausti And.ak, Uhaitz 2ko jabeekideen izenean alegazioen idatzi bat aurkeztu du. Idatzi honen inguruan Udaleko abokatu ahokulariak egindako txostenetik zera ondorioztatzen da:

“Alegazioaren edukiak aztertutik jarraian erantzuten dira:

1. Lehenik Uhaitz 2ko bizilagunek ondoko finketako edozeinek baino zesio karga handiagoa jasaten ari direla adierazten da, gai hauek aztertzeko momentua ez den arren.

Espedienteari hasera ematen dion Alkatetzaren Ebazpeneko azalpen zatian jasotzen den bezala, Hiri Antolamenduko Plan Orokor zaharreko 25. Poligonoaren ordenazioa, Uhaitz 2ko etxea bertan kokatzen da, 1965. urtekoa da. Orduan egin ziren guneko irabazien eta kargen berdinbanaketak, eta orain egin nahi dena ez da zesioa, ez eta aprobetxamenduak eskuratzea ere; soilik, bere egunean formalizatu beharreko lursailaren zesioa erregularizatzea baizik.

Ondorioz ez da irabazien eta kargen arteko inongo orekarik hausten, egiten den bakarra zesio bat arautzea bait da, behin eta berriz esan bezala bere egunean egin behar zena.

2. Bigarren puntu bezala eraikigarritasuna ematea eskatzen da: hirigintz araudian ezarritako irabazien eta kargen berdinbanaketa printzipioak, esleipena jabe bakoitzak emandakoaren arabera egitea du helburu. Hau da, ez da eraikigarritasun “asko” edo “gutxi” ematea, proportzionalki dagokiona baizik.

Ondorioz, Uhaitz 2n kokatutako etxebizitza eraiki zen lursaileko jabeei zegokien eraikigarritasuna, aipatu etxebizitza eraikitzerakoan gauzatu eta ondare bihurtu zen. Hau honela izanik, eta bere egunean eraikigarritasuna ondare bihurtu zela kontutan hartuz, ez dago orain berriz ere eraikigarritasuna ematea. Honek oinarritzko hirigintz printzipio bat urratzea suposatuko luke, lursail bat eraikigarritasun bikoitzaren onuradun izatea eragozten duena hain zuzen.

3. Hirugarrenik alegatzaileak suposamendu batera jotzen du, Etxe Oena etxea, zeinek aztertzen ari garen kasuarekin erlaziorik ez duela kontsideratzen den, ez bait da poligono berean aurkitu ere egiten, eta ondorioz berau eraikitzerakoan bategindako arrazoiak, hirigintz planak eta gainontzeko zehaztapenak ez bait dira ezagutzen. Edozein kasutan ez da lursail gehiago edo gutxiago zesioan ematea, une bakoitzean onartutako planek ezarritako betebeharrak betetzea baizik.

Azkenik, eta jabekideak hirilur izaerako ondasunen gaineko zerga ordaintzen ari direnaren aipamenari buruz esan, errolda aztertu ondoren adierazpen hori ez dela zuzena, azalera hori jabari eta erabilera publikokoa bezala agertzen bait da. Edozein kasutan, eta horrela balitz ere, katastroari dagokion akats batek ezin ditu zilegizko ez diren hirigintz eskubideak sortu.”

Guzti horren aurrean, Udal Osoko Bilkurak, aldeko 8 botu (EAJ-PNV, PSE eta PP) eta aurkako 2 boturekin (EA), eta beraz eta Udalaren partaideak guztira hamahiru direlarik, Udalaren legezko gehiengo osoaren aldeko botuz, honako erabakiak hartzen ditu:

1. Maria Ignacia Arregi Insausti And.ak Uhaitz 2ko Jabekideen izenean aurkeztutako alegazioen idatzia ezestea, akordio honen azalpen zatian egindako kontsiderazioetan oinarrituta.
2. Bide eta urbanizaziora zuzendutako, eta Uhaitz kaleko 2 zbk.ren inguruan kokatutako 1.124m²-ko lursaila Lazkaoko Udalaren izenean inskribatu eta okupatzea. Aipatu azalera Tolosako Jabetza Erregistroko 1.211 zbk.dun finkan barneratzen da, 603. Tomoa, Lazkaoko 25. Liburua. Alde guztietara Uhaitz 2ko eraikinarekin muga egiten du eta gainera beste hauekin: Iparraldetik, lehen Simon Etxezarretaren Oinordekoen etxea eta baratza, orain Uhaitz kaleko 1 zbk.dun eraikina edo Etxe Oena bezala ezagutzen den etxea; Hegotik lehen Labetxea izeneko etxea eta Miguel Garmendiaren baratza, orain Uhaitz 3ko eta Elozegi 4ko eraikinak; Ekialdetik Agauntza erreka eta Mendebaldetik lehen kale Nagusia eta Labetxea etxea, orain Elozegi kalea eta kale bereko 4 zbk.dun eraikina. Finka honetatik departamentu guztiak segregatu egin ziren eta finka berriak akordio honen Eranskinean zehazten diren zenbakipean inskribatuta daude.

ERANSKINA

DEPT. ZBK.	DESKRIB.	TOMOA	ORRIA	FINKA	LIBUR.	JABEAK
1	Lokal Komer.	1.413	117	1.944	67	Miguel Arakama Mujika Jn. eta María Dolores Alkaiaga Garmendia And.
2	Lokal Komer.	787	233	1.938		Ignacio Barandiaran Aldasoro Jn.
3	Lokal Komer.	798	4	1.945		María Ignacia, Martina eta María Asunción Arregui Insausti And.ak.
4	Lokal Komer.	787	236	1.939		Ignacio Artano Zuriarrain Jn. eta bere emaz- tea Maria Zabala Artano And.
5	Lokal Komer.	1.485	135	2.301	71	Ignacio Maria Artano Zuriarrain Jn. eta bere emaztea María Zabala Artano And.
6	Lokal Komer.	798	7	1.946		María Ignacia, Martina eta María Asunción Arregui Insausti And.ak.
7	1. Sol. Ezk.	808	244	2.151		Elías Imaz Ezcurdía Jn.
8	2. Sol. Ezk.	1.841	185	2.103	85	Ignacio Sarriegi Sarriegi Jn. eta bere emaztea M ^a Aranzazu Zumarraga Ugartemendia And.
9	3. Sol. Ezk.	787	227	1.936		Justo Luis Oyon Latienda Jn. eta bere emaztea Serapia Gorrotxategi Apalategi And.
10	4. Sol. Ezk.	1.545	207	1.941	73	Ignacio Mendizábal Ezquerria Jn. eta bere emaztea M ^a Carmen Bereciartua Zufiria And.
11	5. Sol. Ezk.	787	230	1.937		José María Arza Ceberio Jn. eta María Teresa Aguirre Arratibel And.
12	6. Sol. Ezk.	1.260	46	1.949	58	Julian San Juan Perez Jn. eta bere emaztea Isabel Beristain Amenabar And.
13	1. Sol. Erd.	808	86	2.102		Enrique Aguirre Dorronsoro Jn. eta bere emaztea Juana Aguirrezabalaga Irastorza A.
14	2. Sol. Erd.	2.018	189	1.935	96	Juan José Echeverría Zaldúa Jn.
15	3. Sol. Erd.	1.988	068	1.942	95	Iker Arza Aguirre Jn.
16	4. Sol. Erd.	1.658	165	1.940	78	Manuel María eta María Jesús Larrañaga Yurrita Jn./And.ak.
17	5. Sol. Erd.	787	248	1.943		Santiago Arregui Insausti Jn. eta Julia Imaz Aizpurua And.
18	6. Sol. Erd.	808	139	2.118		José Belamendía Jauregui Jn. eta Vicenta Huarte Aizcorta And.
19	1. Sol. Esk.	1.967	050	2.158	94	Joseba Arratibel Mendizábal Jn. eta Jone Irizar Moran And.
20	2. Sol. Esk.	1.898	193	2.149	88	Juana Otaño Eztala And.
21	3. Sol. Esk.	808	133	2.116		José Ramón Murua Marigomez Jn.
22	4. Sol. Esk.	808	241	2.150		Pedro María Albisu Azarola Jn.
23	5. Sol. Esk.	808	142	2.119		Rosario Arregui Insausti And. eta bere senarra Raimundo Calvo Jn.
24	6. Sol. Esk.	1.174	105	2.117	55	Josefina Lizarraga Lizarraga And.

Igor Sarriegi Zumarraga zinegotzia berriro bilkura bertaratzen da.

VII.- SAN BENITO IKASTOLARI AZALERA ESKUBIDEAREN ZESIOA.-

Udal honetan, San Prudentzio Ikastetxean eraiki gabeko zazpirehun eta bederatzi (709 m²) metro karratutako lursailaren gainean azalera eskubidea San Benito Kultur Elkarteari lagatzea planteatzen da, honek hezkuntzarako izango den eraikina eraiki dezan, horretarako izapidetutako espedientean aurkitzen den baldintza pleguaren arabera.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du baldintza plegu hori ez duela jaso, dena den abstenitu egingo dela zeren San Prudentzio Ikastetxean lehen eskola publikoa egon zela eta lagapen horrekin nolabait ere baldintzatu egiten dela etorkizuna, adibidez euskal eskola publiko bat irekitzea ezinezkoa izango litzakela.

Alkateak erantzuten dio lagatzen dena eraiki gabeko lursaila dela eta ez eraikin guztia.

Olaso zinegotziak (PP), Udalak lur horien beharra izango balu berriro eskuratzeko aukerarik ba ote lukeen galdetzen du.

Alkateak erantzuten dio esanez inbertsioa ikastolak egingo lukeenez, 50 urte baino lehen kenduko balitzaioke, kalteordainen bat edo akordioaren bat egin beharko litzatekela.

Alkateak esaten du San Benito Kultur Elkartea Kooperatiba bihurtzekotan dabilela eta ondorioz, planteatzen du lagapenak berdin balio izatea San Benito Kooperatibarentzat ere akordio berri baten beharrik gabe.

Guzti honen ondoren, Osoko Bilkurak, aldeko hamaika (11) botu (EAJ, EA, PP), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PSE-EE), San Benito Kultur Elkarteari edo hala balegokio, akordio hau gauzatzekoan izena aldatu duelako, San Benito Kooperatiba Elkarteari, San prudentzio Ikastetxean eraiki gabeko zazpirehun eta bederatzi (709 m²) metro karratutako lursailaren gainean azalera eskubidea lagatzea, honek hezkuntzarako izango den eraikina eraiki dezan, horretarako izapidetutako espedientean aurkitzen den baldintza pleguaren arabera.

VIII.- GOIEKIKO ADMINISTRAZIO KONTSEILURAKO ORDEZKARIEN AUKERAKETA.-

Goierriko Ekimena, S.A. -GOIEKI- Goierriko Udalek osatutako Elkarte Anonimoa da eta beraz Goierriko Udaletako zinegotzi guztiak osatzen dute.

Hau honela izanik eta azken udal hauteskundeen ondoren, GOIEKiko administrazio kontseilu berria aukeratzea egokitzen da, eta GOIEKiko estatutoek diotena jarraituz, kontseilu honetako partaidetza hauteskundeen emaitzen arabera izango da alderdi politiko ezberdinen artean. Bestalde alderdi politikoek adostasunera iritsi dira Administrazio Kontseilu honetan alderdi guztiek ordezkatuak egon daitezen.

Hau kontutan izanik, alderdi politiko ezberdinen artean administrazio kontseilua osatzeko zerrenda bat adostu da eta zerrenda hau da gaur Osoko Bilkura honen aurrera ekartzen dena bere onarpenerako.

GOIEKiko administrazio kontseilua osaketa proposamena honako hau da:

<u>ALDERDI POLITIKOA</u>	<u>HERRIA</u>	<u>HAUTATUAK</u>
EAJ	BEASAIN	Patxi Plazaola
EAJ	ORDIZIA	Alejandra Iturrioz
EAJ	LAZKAO	Felix Urkola
EA	IDIAZABAL	Antton Irizar
EA	ZEGAMA	J. Ignazio Galdos
PP	BEASAIN	Julio Herreros
IU/EB	ORDIZIA	Julian Carrasco
PSE-EE	BEASAIN	Jose Antonio Sanchez
ARALAR	ZALDIBIA	Patxi Aierbe
HERRI PLATAFORMA	OLABERRIA	Joseba Alonso
INDEPENDIENTEA	ATAUN	Bittor Oroz

Bestalde Administrazio Kontseilu hau onartuko duen Batzar Nagusirako udal ordezkaria Felix Urkola Iriarte, Alkatea, izatea proposatzen da.

Osoko Bilkurak, aho batez, GOIEKiko administrazio kontseilua osatzeko proposatutako zerrenda hau onartu egiten du eta GOIEKIn egingo den Batzar Orokorrerako Lazkaoren ordezkaria Felix Urkola Iriarte izendatzea erabakitzen du.

IX.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Igor Sarriegi zinegotziak (EA) Antzalden egin den obra bati buruzko galdera bat egiten du.

Alkateak erantzuten dio esanez egindako lanak ez direla emandako baimenera egokitzen eta beraz egindako lanei egokitutako eskaria eta proiektua aurkez dezaten eskatu zaiela, eta orduan ikusiko da metro gehiago eraiki den ala ez.

Une honetan Inazio Estensoro zinegotzia bertaratzen da.

Olaso zinegotziak (PP) esaten du berandu iritsi dela baina aurreko aktari buruz zerbait esan nahiko lukeela. Esaten du batzordeetako gaiaren inguruan egiten duen erreibindakazioan zera erantzuten zaiola, batzordeen osaketa akordioa erabaki zen Osoko Bilkuran bera ere han zegoela eta osaketa hura onartu egin zuela, eta berak erantzun zuela baietz baina berak orduan ez zekiela batzordeak garatu behar zituzten funtzioak eta gero bai, ezagutu ondoren, badakiela zer funtzio dituzten eta horregatik erizpideak aldatu eta zenbait kuestio planteatzen dituela.; beste alde batetik, esaten du gizarte asistente plazaren gaiaren inguruan plaza hutsik dagoela jartzen dela eta berak uste duela hor akats bat dagoela zeren ordezkaturata dagoela.

Olaso zinegotziak esaten du baita ere Eguneko Gai Zerrendan sartua izan zedin proposamen bat bidali zuela zinegotzien funtzioak batzordeetan eta beren ordainsariak gaiaren inguruan eta Eguneko Gai Zerrendan ez dela sartu.

Alkateak erantzuten dio esanez proposamen hori faxez iritsi zela eta iriste hori Eguneko Gai Zerrenda banatzen hasi ondoren izan zela. Baita ere, berarekin telefonoz hitzegiten saiatu dela eta ez duela lortu eta esan nahi ziola Osoko Bilkurara erabakitzeke proposamenak ekarri behar direla eta ez eztabaidatuak izan daitezen gaiak, eta berak behintzat bidali den idatzian ez duela ikusten inolako proposamenik edo planteamendurik dagoenik eta ez dakiela zer nahi den, edo nola dagoen jakiteko galdera den edo tratatu nahi den gai bat den eta azkeneko hau baldin bada gainontzeko alderdiek tratatzeko moduko gaia den ala ez erabaki beharko dute, hala balitz dagokion batzorde informatzailean tratatu eta ondoren orain dagoenetik beste proposamen bat aterako balitz hori ekarri Osoko Bilkurara.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hogeit gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.